

2015eko lehen hiruhilekoan 864 ezkontza izan ziren, urtebete lehenago baino %7,4 gutxiago

Ezkontza zibilak, %93

Euskal AEn 864 ezkontza izan ziren 2015eko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berean (933) baino %7,4 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Urteko lehen hiruhilekoan ezkontza gutxi izaten da, batez ere urtarrilean eta otsailean.

Aurreko urteetan bezala, ezkontza zibilen ehuneko handia (%92,8); aurreko urteko aldi bereko ehuneko berbera. Ezkontza zibilak: Araban %96; Bizkaian %94; Gipuzkoan %90,9.

2015eko lehen hiruhileko 864 ezkontzetan, bizilekua Euskal AEn duten 831 gizon eta 843 emakume ezkondu ziren; gainerako ezkontideak erkidegotik kanpo bizi ziren. 710 senarrentzat (%85,4), lehen ezkontza; 9 alargun eta 112 dibortziatu berriro ezkondu ziren. Aurreneko aldiz ezkonduko emakume-portzentajea txikixeagoa (%82,8, 698); 7 alargun eta 138 dibortziatu.

Ezkontzak ezkontideek eztei-egunean zuten adinaren arabera banatuz gero, senarren artean, %89,8k zituzten 30 urtetik gora; emazteen artean, %83k. Aurreko hiruhilekoan 30 urtetik aurrerakoak %88,5 eta %82,3 zirenez, oraingo portzentajeak handixeagoak.


2015eko lehen hiruhilekoan emakume ezkonberrien %16,3 eta gizon ezkonberrien %11 atzerritarrak ziren. Portzentaje hauetan, 2014ko aldi beraren aldean, -0,8 puntu eta -1,7.

Sexu bereko pertsonen artean, 26 ezkontza; urtebete lehenago, 17. 21 emakume artean eta 5 gizon artean.

	2015eko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2014ko 4. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2014ko 1. hiruhilekoa)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	864	100,0	1.434	100,0	933	100,0
Kanonikoak	62	7,2	244	17,0	68	7,3
Zibilak	802	92,8	1.190	83,0	865	92,7
SENARGAIK	831	100,0	1.392	100,0	907	100,0
Ezkongabeak	710	85,4	1.207	86,7	758	83,6
Alargunak	9	1,1	7	0,5	8	0,9
Dibortziatuak	112	13,5	178	12,8	141	15,5
EMAZTEGAIK	843	100,0	1.394	100,0	899	100,0
Ezkongabeak	698	82,8	1.206	86,5	767	85,3
Alargunak	7	0,8	8	0,6	5	0,6
Dibortziatuak	138	16,4	180	12,9	127	14,1

Iturria: Eustat. Ezkontzen estatistika

Bizilekua Euskal AEn dutenen ezkontzak. Hileko datuak



Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62
 Euskal AEko ezkontzen estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago
 Euskal AEko eskontzen estatistikari buruzko datu-bankua